

## DBH4




Ane Dehesa eta Alaia Belaunzarán  
DBH 4

# Jakiunde

**Jakiunde, zientzia, arte eta letren akademia 2007ko urriaren 25ean eratu zen Donostian Eusko Ikaskuntzaren ekimenaren eraginez.**



Akademia hau, maila goreneko erakunde aholkulari gisa, gizartearentzat erreferentziatzeko foroa izateko helburuz sortu zen. Ereduzko erakundea izatea du helburu, osaeran nahiz jardueran; gidaria izatea, zorrotasun zientifikoarengatik eta ezagutzarengatik, eta ekintzekin eta aholkuekin gaur egungo arazoetarako egokiak diren irtenbideak aurkitzen laguntzea.



Gaur egun, jakiundeko lehendakaria Pedro Miguel Etxenike fisikaria da. Ikerkuntzako Euskadi saridunak, Principe de Viana saridunak eta Eusko Ikaskuntza saridunak daude Jakiundeko kideen artean, hau da, Literatura, Zuzenbidea, Historia, Antropologia, Zientzia, Zinema, Musika eta Arkitekturaren alorretako espezialista ospetsuak.

Estatutuen arabera, Jakiundeko osoko kideak urtean hiru aldiz elkartuko dira osoko bilkuretan, batzor-

de espezializatuek urtean zehar egindako lana berresteko xedez. Akademikoek berek osatuko dituzte batzordeak eta, hala erabakiz gero, dagozkien alorretako adituen laguntza izango dute.

Aurtengo ikasturtean zientzietako arloetan, hau da, Natur Zientziak, Biologia-Geologia eta Fisika-Kimikan, proposamen bat azaldu digute. Jakiunde izeneko erakunde garrantzitsu batek ikastola eta eskola desberdinetako DBH 4. mailako ikasleei hainbat hitzalditara joateko aukera eman digute. Hauek bi multzotan sailkatzen dira, gai desberdinez osatutakoak, hala nola, nanoteknologia, euskara, burmuina eta adikzioa... Bestalde, gaietan jakintza handia dutenek ematen dituzte hitzaldiak, Pedro M. Etxenike, Ibon Sarasola, Nekane Balluerka...

Gure mailan bi pertsona bakarrik animatu garenez, DBH 3. mailakoei ere aukeran eman zaie eta hemendik ere bi pertsona animatu dira.

Bost hitzaldi izango dira, hilabetean bat, eta oraingoz bat baino ez da izan. Hauetara joaten diren pertsonak oro har kuriositate handia dutenak dira. Hitzaldia amaitutakoan galderak egitera animatzen gaituzte eta argi eta garbi erantzuten digute, guk ulertzeko moduan, baina oso terminologia profesionala erabiliaz.

Esperientzia hau oso ona izan daiteke ikasle guztiontzat eta gure ikastolan aukera hau ematea oso aberasgarria da zientziaren inguruan informazio gehiago eta beldur gutxiago izateko.

*DBH 4. mailako  
Ane Dehesa eta Alaia Belaunzarán*